



2012 urterako UDAL FISKALITATErako PROPOSAMENA

ENBA nekazal sindikatuak bere helburuen artean Gipuzkoako baserritarren interesak defendatu eta beren ustiapenak garatzeko ahalik eta ingurune aproposena sustatzea du eta horien artean, arlo fiskala dugu.

Udazkena, datorren urteko zergak eta tasak onartzeko urte sasoia da eta hain zuzen horrexegatik, udal guztiengana jotzen dugu, araudi fiskalak onartzeko unean, nekazarion ikuspuntua eta beharrak kontutan izan ditzazuen.

BASERRITARRON ESTRATEGIKOTASUNA

Baserritarek, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako datuen arabera, Gipuzkoako lurraldearen %84^a kudeatzen dute, bai landatutako lursail, belardi eta basoetan, beraz, heuren dira, gure lurraldearen kudeatzaile eta zaindari nagusiak, ahaztu gabe, lurraldea kudeatzeko tresnarik egokiena nekazal iharduera bera dela.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2020 estrategia izeneko plangintzan, 2. helburu gisara, nekazal sektorea estrategikotzat jotzen du, bere etorkizuna errentagarritasunarekin hertsiki planteatuz eta lan ildo gisara, nekazaritzarako aitortzen den ingurumen ekarpena babesteko, fiskalitatea jorratzeko aukera planteatzen du.

Ildo beretik, 2010ko ekainaren 30ean, Gipuzkoako Batzar Nagusiek, aho batez, Gipuzkoako nekazal sektorearen etorkizuna jorratzeko ponentziaren amaierako txostenean, nekazal sektorea Gipuzkoako sektore estrategikotzat jo zuen eta estrategikoa den sektoreari laguntzeko hainbat lan ildo eta neurri proposatzen ditu, besteak beste, arlo fiskala.

Oraingo honetan, kontuan izanik zein urte sasoiari aurkitzen garen, udal mailako arlo fiskalari heldu nahi diogu, hain zuzen ere, urtero udalek berriro eta eguneratzen dituzten udal araudi fiskalak; bakoitzak bere ahalmenak kontuan izanik baina nola ez baina, baita ere, kontuan izanik lurralde osoan egiten dena.

PROPOSAMENAREN HELBURUAK

Hori dela eta, Gipuzkoako ENBA nekazal sindikatuak 2012 urterako UDAL PROPOSAMEN FISKALA osatu nahi du honako **helburuekin**:

- Baserri munduak bizi duen krisialdiari aurrean ingurune fiskala xamurra sustatzea.
- Gipuzkoako lurraldeko udalerri guztietan irizpide bateratuak erabiltzea eta era horretara, udalerri batetik bestera aurkitzen ditugun ezberdintasunak gutxitzea.
- Zenbait udaletako araudi fiskaletan, baserri munduari emandako tratamendua eguneratzea, egungo errealitatera egokitu eta egungo sektore ekoizlearengana hurbilduz.
- Baserritarra zein den, profesionaltasuna zer den, etb moduko zalantzaK ekiditu eta irizpideak argitu eta bateratzea, 17/2008 Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako Legea oinarritzat hartuz.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

Ez ditugu udal araudi fiskaletan jasotzen diren zerga eta tasa guztiak landu, baserri munduarekin zerikusi estuen dutenak baizik eta horrexegatik, gure PROPOSAMENAK honako zerga eta tasetara jorratuko ditu:

1- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga

14/1989 Foru Arauaren 2.1 artikulua 1. puntuko G hizkian jasotzen duenez, zerga ordaintzetik salbuetsiak daude *“Nekazaritzako Ikuskapenaren Kartilaz hornitutako traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makinak”*.

Beraz, ENBA nekazal sindikatuak, udal batzuetan ikusitako zalantzaK eta oztopoak ekiditzearen, 14/1989 Foru Arauak gure baserrietako makinariako jasotzen duen salbuespena udal araudian txertatzea eskatzen du.

14/1989 Foru Arauaren 2.1 artikulua 2. puntuan *“salbuespenak aplikatu ahal izateko, interesatuek eskatu egin beharko dituzte ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz”* dio eta badira, gutxiengoa bada ere, salbuespena urtero eskatzera derrigortzen dutenak. Kasu hauetarako, argigarri litzateke, araudian ere txertatzea, salbuespena eskatzeko aldia fikatuz.

2- Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga.

Gipuzkoako udal araudi fiskalak oso anitzak dira atal honetan eta bertan ikus ditzakegu, baserritarrek sustaturiko obren kasuan salbuetsita uzten dutenetik hasi eta inongo begirunerik gabe, zuzenean, %5a planteatzen dutenek.

Egoera honen aurrean, Gipuzkoako ENBA nekazal sindikatuak, aurrez aipatutako Batzar Nagusiek onartutako txosteneko azken adierazpenean aldarrikatzen den estretagikotasunari helduz, **17/2008 Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako legean nekazari profesional eta nagusiki nekazari (ATP) kalifikazioa dutenentzako SALBUESPENA eskatzen du bai heuren bizilekua den baserrirako bai heuren ustiapena osatzen duten elementu guztietarako**, besteak beste, ikuiluak, almazenak, negutegiak, salmenta puntuak, nekazalturismoa, agroaldea, etb.

Jakitun gara, gaur egun udaletxe batzu salbuespena onartua izan arren, Gipuzkoako udalerri batzuk ez dutela SALBUESPENAREN bidea hartu eta hauen kasurako, HOBARlen bidea jorratzea proposatzen dugu, honako era honetara:

- Baserri eremuko obretarako, nahiz bizileku nahiz ustiapenerako, %1eko karga tasa ezarri.
- 17/2008 Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako legean nekazari profesional eta nagusiki nekazari (ATP) kalifikazioa dutenentzako, %95eko hobaria aplikatu.
- 17/2008 Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako legean Lanaldi partzialeko nekazarien kalifikazioa dutenentzat %50eko hobaria proposatzen dugu.

Azkenik, baserritarrentzat eta gainuntzeko herritarrentzat, 15/1989 Foru Arauak bere 4. artikularen 3. puntuan jasotzen den aukera aktibatzea eskatzen dugu, hau da, *“Eraikuntza, instalazio edo obrari dagokion hirigintza lizentzia jasotzeagatik subjektu pasiboak tasa gisa ordaindu duen edo ordaindu behar duen zenbatekoa kuota osoan kenkariduna izatea edo Zergan hobaritura egotea”*.

3- Obra baimenaren lizentzia emateagatik tasa.

Atal honetan ere oso kasuistika zabala topatu dugu, txostena hau egiteko garaian aztertu ditugun araudietan. **Eraikin gaineko zergaren aurrean proposatutakorekin koherentziaz, nekazari profesional eta nagusiki nekazariak direnentzat SALBUESPENA eskatzen dugu.**

Lanaldi partziala Lanaldi partzialeko nekazarien kalifikazioa dutenentzat %50eko hobaria proposatzen dugu.

4- Iharduera eta irekiera lizentziak emateagatik tasa

Aurrez esan bezala, hemen ere, Gipuzkoan zehar oso kasuistika zabal agertzen zaigu eta ENBA nekazal sindikatuak honako proposamena egiten du:

Nekazari profesional eta nagusiki nekazariak direnentzat SALBUESPENA eta Lanaldi partziala Lanaldi partzialeko nekazarien kalifikazioa dutenentzat %50eko hobaria proposatzen dugu.

5- Ura

Euskadiko Uraren legeak eta Europako Directiva Markok agintzen duenari helduz, honako proposamena egiten dugu:

Uraren tarifyan, orain arteko etxetiarra/ez etxetiarra-industriala bereizketa gaingitu eta Nekazal iharduerarako tarifa bereiztua sortu.

Tarifa bereiztua sortzeaz gain, nekazal iharduerak lurralde kudeaketan eta ingurumen zaintzan betetzen duen papera babestu asmoz, honako proposamena egiten dugu:

Nekazal iharduerarako uraren prezioa ur etxetiarraren %50 izatea.

Jakitun gara, udal askok uraren kudeaketa Kontsortzio edo Patzuergoen eskutan utzia dutela; kasu hauetan, eskakizun hauek bertara trasladatzea proposatzen dizuegu eta baserritarren aldeko neurri hauek, udalaz gain dauden entitate hauetan onartzea.

ELKARLANERAKO DEIA

Gure proposamena aztertzea, udal batzordeetan eztabaida piztea eta baserritarren interesak babestea da gure helburua eta horretarako aurkezten dugu PROPOSAMENA.

Espero dugu zuen babesa lortzea eta jakitun izan, gure elkarlana behar izanez gero, zuen esanetara gaituzuela bai zalantzak argitzeko edota informazi gehigarria aportazeko bai batzordeetan partehartzeko.

Azkenik, gure proposamenak izandako ERANTZUNAREN nondik-norakoa, gure bulegotara bidaltzea eskertuko genizueke.

ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna)
2011-09-15